

KANALA

Gure ideia, sare sozialen bidez ezagutaraztea da; hau da, gaur egun, gero eta jende gehiagok erabiltzen ditu sare sozialak, ez bakarrik gazteok. Horregatik, uste dugu modu honetan eginez, aukera ona dela gure enpresa zabaltzeko. Hortaz, gure indargunea sare soziala izango da.

Horrez gain, pentsatu dugu kaletik kartelak itsaztea; horrela, sare sozialak erabiltzen ez dituztenak ere jakitun izan daitezten.

Gainera, ikastetxeko sarreretan gure enpresari buruzko publizitatea banatzea ere egingo dugu. Horri esker, bezeroekin gertutasuna lortzeko aukera gehiago izango ditugu, euren konfiantza eta segurtasuna eskuratzeko.